

**Ebazpena: R167/2022**

**Espedientea: 52/2015**

Vitoria-Gasteizen, 2022ko abenduaren 15ean.

Euskal Autonomia Erkidegoarekiko Ekonomia Itunean aurreikusitako Arbitraje Batzordeak –Violeta Ruiz Almendral batzordeburuak eta Soffía Arana Landín eta Javier Muguruza Arrese batzordekideek osatuak– erabaki hau hartu du:

### **ERABAKIA**

OILSLk 2008ko urtarrilaren 28an zerga-egoitza aldatu zuela-eta Gipuzkoako Foru Aldundiak (aurrerantzean GFA) Zerga Administrazioako Estatu Agentziarekiko (aurrerantzean ZAEA) aurkeztu duen gatazkari buruzkoa. Gatazka Arbitraje Batzorde honetan izapidetu da, 52/2015 espediente-zenbakiarekin.

### **AURREKARIAK**

1.- OILSL merkataritza-sozietate bat da, SEM jaunak (Pontevedran du egoitza) eta IAA jaunak (Ekuatore Ginean du egoitza) 2008ko urtarrilaren 28an eratu zutena. Aurkeztutako gatazkaren ondorioetarako, honako hauek dira datu garrantzitsuenak:

- Egoitza soziala Donostiako P kalean dago.
- SEM jauna izendatu da administratzaile bakar.

- Sozietatearen objektu soziala da eraikuntzako eta obra publikoko mota guztietako materialak, makinak eta gaiak inportatzea, esportatzea eta merkaturatzea, handizka eta txikizka.

**2.-** 2008ko maiatzaren 25ean, OILSLk zerga-egoitza aldatu zuen, GFAn zentsu-aitorpenaren 036 eredua aurkeztuta. Hau du helbide berria: Agirre Miramon 7, 1., 2. bulegoa, Donostia. 2011ko azaroaren 9an, berriz aldatu zuen zerga-egoitza, zentsu-aitorpenaren 036 ereduaren bidez. Aldaketak 2012ko ekainaren 1etik aurrerako ondorioak ditu, eta zerga-egoitza A Coruñako L kalean dauka orain. Era berean, Merkataritza Erregistroan 2014ko uztailaren 8an inskribatu eta Merkataritza Erregistroaren Aldizkari Ofizialean 2014ko uztailaren 15ean argitaratu zenez, OILSLk sozietatearen estatutuak aldatu zituen egoitza soziala A Coruñako L kalera aldatzeko.

**3.-** GFAk egindako egiaztapen-jarduketetatik ondorio hauek ateratzen dira: negozioen kudeaketa eta zuzendaritza bazkideek, eta bereziki administratzaile bakarrak, gauzatzen dute beraien bizilekuetatik; OILSL eratzeko estatutuetan azaltzen den egoitza sozialean pertsona bakarra aritzen da administrazio-lanak egiten; OILSLren bezeroak Ekuatore Gineakoak dira eta hornitzaile gehienak galiziarak; Gipuzkoan langile bakarra dauka administrazio-lanak egiten; erakundearen kontabilitatea Donostiako gestoria batek darama eta bertan artxibatzen dituzte zerga-aitorpenen kopiak; OILSL hiru banku-konturen titularra da (bi Pontevedrako sukurtsaletan irekita daude eta bestea Donostian); salgaiak zuzenean enpresa hornitzaileetatik ateratzen dira Ekuatore Ginearantz, eta ez dira inoiz Donostiatik pasatzen.

**4.-** 2012ko irailaren 18an, OILSLren egoitza 2008ko urtarrilaren 28rako atzeraeraginarekin Pontevedrara aldatzeko proposamena jakinarazi zion GFAk ZAEARI, eta proposamen hori berretsi zion ZAEARI 2013ko maiatzaren 20an,

2013ko ekainaren 3an, 2013ko uztailaren 9an, 2013ko irailaren 27an, 2013ko urriaren 3an, 2014ko otsailaren 14an, 2014ko apirilaren 7an eta 2014ko azaroaren 5ean.

**5.-** Lau hilabete pasatu eta ZAEAk proposamenari oraindik erantzun ez zionez, Ekonomia Itunarekin eta Ekonomia Ituneko Arbitraje Batzordearekin bat etorritz, GFAk Ekonomia Itunaren Arbitraje Batzordean aurkeztu zuen gatazka, 2015eko azaroaren 12an.

**6-** Gatazka prozedura arruntaren bidez izapidetu da eta, beraz, bete da ZAEAk alegazioak egin eta froga eta dokumentazio egokiak aurkeztu eta proposatzeko izapidea. ZAEAk izapide hori betetzeko epea luzatzeko eskatu ondoren, azkenean, amore emanda, onartu egin du GFAk proposatutako egoitza-aldaketa.

## ZUZENBIDEKO OINARRIAK

### 1.- Arbitraje Batzordearen eskumena

Arbitraje Batzordeak gatazka ebazteko eskumena du Ekonomia Itunaren 66.Bat.c) artikuluan xedatutakoaren arabera, artikuluko horrek hari esleitzen baitio *zergadunen egoitza dela-eta sor litezkeen desadostasunak ebazteko zeregina*.

### 2. - Amore ematea

Interesdunik ez da aurkeztu eta, bereziki, zergapekoa bera ere ez da aurkeztu, eta ZAEAk amore eman eta onartu egin du GFAk egin dion helbide-aldaketaren proposamena. Horren eraginez, bertan behera geratzen da bi administrazioen arteko gatazka eta horrek eragiten du Ekonomia Itunaren Arbitraje Batzordean

bideratzen ari den prozeduraren xedea desagertzea eta, ondorioz, artxibatu behar izatea.

Horiek horrela, Arbitraje Batzordeak hauxe

### **ERABAKITZEN DU**

**1.-** Gatazka artxibatzea, prozeduraren xedea desagertu delako, ZAEAk amore eman baitio OILSLren egoitza aldatzeko GFAk egin dion proposamenari. Erabaki honek 2008ko urtarrilaren 28tik aurrera izango ditu ondorioak.

**2.-** Erabaki hau Zerga Administrazioiko Estatu Agentziari, Gipuzkoako Foru Aldundiari eta OILSLri jakinaraztea.